

## **1999ko ABENDUAREN 29ko BILKURA NAGUSIA**

Lizartzan, mila bederatziehun eta laurogeita hemeretzi abenduaren hogeita bederatzian, gaueko bederatzia direnean, Alkatea: Jose Antonio Mintegi Arrate; Udalkideak: Ana Ederra Irurzun, Antton Balerdi Garmendia, Nerea Altuna Zubeldia, Lurdes Altuna Arritegi, Lontxo Goikoetxeaundia Martinez; Koldo Alaña Zinegotzia, preso dagoenez, eta bilkurara etortzeko baimenik eman ez diotenez, ez du etortzerik izan; Idazkaria: Ana Jesus Zabala Garmendia eta beste hainbat herritar, Biltzar Nagusian bildu dira, gai hauek erabili direlarik:

### **1.- AURREKO AKTEN ONARPENA:**

Alkateak, aurreko saioen aktei ezer esatekorik badagoen galdetu du, eta inork ezer esatekorik ez duenez, aho batez onartu dira.

### **2.- LANGILEEN FUNTZIONARIZAZIORAKO OINARRIAK**

**LIZARTZAKO UDALEKO LAN KONTRATUPEKO LANGILE FINKOEN KARRERAKO FUNTZIONARIO-IZAERA ESKURA DEZATEN DEITURIKO HAUTESPEN-ARIKETA MUGATUAK, AZAROAREN 7ko 16/1997 LEGEAK, UZTAILAREN 6ko 6/89 EUSKAL FUNTZIO PUBLIKOARI BURUZKO LEGEA ALDATU DUENAK, BIGARREN XEDAPEN GEHIGARRIAN ARAUTUTAKOAREN BABESEAN DEITUTAKOAK.**

#### **1. Xedea**

Oinarri hauen xedea, Lizartzako karrerako udal-funtzionario-izaera lortzeko hautespen probak deitzea da, oinarri hauen eranskinean zehaztu diren eskaletako lanpostuak betez egingo dena alegia.

Hautespen-prozesu honen bidez, karrerako funtzionario-izaera lortzeko, interesdunak betetzen duen lanpostua automatikoki eraldatuko du, eta hau, lortu duen eskalako plantillako berezkoen barruan sartuko da.

Hautespen-prozesuan esku hartzen ez dutenek, edo berau gainditzen ez dutenek, udalaren zerbitzura jarraituko dute lehendik zuten harreman juridikoarekin, eta horien lanpostuak "iraungiteko"tzat joko dira. Kasu horretan, interesatuek lehen ezarrita zuten lan-kategoriari eutsiko diote, eta, era berean, honi dagozkion ekonomi eskubideak indarrean dagoen hitzarmen kolektiboari jarraiki.

## **2.- Izangaien betebeharrak**

Hautespen-prozesuan esku hartzeko ondokoak bete behar dira:

- a) Dagokion eskala edo azpieskalan sartzeko eska daitekeen titulazioaren jabe izatea.
- b) Lizartzako Udalari lotua egotea lan-kontratu mugagabeko langile gisa, eta indarrean dagoen lanpostu-zerrendaren arabera, karrerako funtzionarioek betetzeko gordeta geratu diren lanpostuetako batean lanean aritzea.
- c) Zerbitzua aktiboki ematen aritzea edo, bestela, lanpostua eta destinoa erreserbatuta edukitzea, zerbitzu aktiboari atxikitako egoera edo kontratua etenda, baldin eta indarrean dagoen lanpostu-zerrendan zerbitzuarekiko beren harremana lanpostutik ezerdina den izaeraz sailkatu bada.

Izangaiek eskaerak aurkezteko epea amaitzen den datan eskatzen diren baldintza guztiak bete beharko dituzte.

## **3.- Eskarien Aurkezpena**

Hautespen-prozesuan esku hartzeko eskariak Alkate Jaunari zuzenduko zaizkio, eta hauetan, eskaerak aurkezteko epea bukatzen den egunerako, beti ere, bigarren oinarrian eskatutako baldintza guztiak betetzen dituztela agertu behar dute izangaiek.

Eskariak, behar bezala beteta, Lizartzako Udaleko erregistro orokorrean aurkeztuko dira, deialdi hau Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratzen denetik 20 lanegunetako epearen barruan.

Izangaiek eskaeran, duten titulazio akademikoaren arabera lehiatzen duten eskala eta azpieskala eta lanpostua zehaztu beharko dute. Honek ezin izango du inolaz ere, berek duten lan-kategoria baino kategorია handiagokoa izan.

Eskariarekin batera alegatu diren merezimenduak egiaztatuko dituzten agiriak aurkeztu behar dira. Ez da kontuan hartuko instantzian aurkezteko epean zehaztu gabeko merezimendurik ezta behar bezala egiaztaturik ez dagoenik ere.

#### **4.- Izangaien Onarpena**

Eskariak aurkezteko epea amaitu ondoren, Alkate Jaunak, ebazpen bidez onartutako nahiz baztertutako izangaien zerrenda onartuko du eta berau Udaletxeko iragarki oholean jarriko da.

Onartutakoen eta baztertutakoen behin-behineko zerrenda argitaratu eta hurrengo egunetik hasita, interesatuek 10 egun baliodun izango dituzte baztertzearen arrazoia izan den akats edo hutsegiteak zuzentzeko, edota zerrendaren aurka egoki iritzitako erreklamazioa aurkezteko.

Behin-behineko zerrendak automatikoki behin-betikotzat joko dira erreklamaziorik aurkezten ez bada. Hauek aurkezten badira, onartuak edo baztertuak izango dira zerrenda behin-betikoa egiten duen beste erabaki baten bidez. Erabaki hau, lehen aipat den moduan argitaratuko da.

Baztertzearen arrazoia zuzendu ez dutenek bere eskaeran atzera egin dutela ulertuko da.

Akats materialak edo izatezkoak prozeduraren edozein momentutan zuzendu ahal izango dira, ofizioz edo alde batek eskatuta.

## **5.- Epaimahai Kalifikatzailea**

Epaimahaiburua:

- Alkatea edo honek ordezko izendatzen duen zinegotzia.

Epaimahaikoak:

- Udalbatzarra osatzen duen alderdiatik, ordezkari bat.

- HAEEn ordezkari bat.

- Udal langileek izendatutako langileen ordezkari bat.

Idazkaria:

- Udalekoa edo honek bere ordez izendatzen duen funtzionaria.

## **6.- Hautespen Prozesua**

Hautespen prozesua, izangaiek agertu eta egiaztatu dituzten merituen balorazioa izango da, ondorengo baremoaren arabera:

a) Egindako lanaren balorazioa:

Lehiatuko duen lanpostuaren eskala, azpieskala eta motako eginkizunetan antzekoa den administrazio publikoko lanpostu batean aritzeagatik: 2 puntu urte osoko edo honen zatiko, gehienez ere, 8 puntu.

b) Prestakuntza-eta hobekuntza-ikasketak

Aurkezturiko lehiaketaren eskala edo azpieskalarekin zerikusi zuzena duten prestakuntza-ikasketetan esku hartu eta bere kasuan gainditzeagatik, 0,5 puntu ikastaro bakoitzagatik, gehienez ere, 2 puntu.

c) Antzintasuna:

Administrazio publikoan emandako zerbitzuengatik: puntu 1 urte osoko edo honen zatiko, gehienez ere, 6 puntu.

Izangaiek hautespen prozesua gainditu ahal izateko baloratuko diren merezimenduen baremoan gutxienez 5 puntu lortu behar dituzte.

## **7.- Gaindituen zerrenda**

Hautespen prozesuaren behin-betiko sailkapenaren hurrenkera, atal guztietan lortutako puntuaren batuketak emango du. Hori egin ondoren, epaimahai kalifikatzaileak iragarkien oholean argitaratuko du hautatuen zerrenda puntuazio hurrenkeran, eta aipatutako zerrenda eskuduntza duen organoari igorriko dio, honek karrerako funtzionarioen izendapenak erabaki ditzan.

## **8.- Agirien aurkezpena**

Karrerako funtzionario izendatu aurretik, hautatuak izan diren izangaiek, udal-erregistroan, 20 eguneko epearen barruan, deialdian eskatzen diren baldintzak eta betebeharrak betetzen dituztela egiaztatzen duten agiriak aurkeztu beharko dituzte. Agiriak hauek dira:

- a) Nortasun Agiri Nazionalaren fotokopia, baldin eta norberaren espedientean ez badago.
- b) Deialdian esku hartzeko eskatzen den tituluaren fotokopia konpultsatua, baldin eta norberaren espedientean ez badago.

Aipatutako epearen barruan eskatutako dokumentazioa aurkeztu ez dutenek, ezinbesteko kasuetan izan ezik, edota hauek aztertu ondoren beharrezko diren baldintzaren bat ez dutela betetzen irizten bada, ezin izango dira karrera funtzionario izendatu eta hauei buruzko jarduerak eten egingo dira, faltsukerian erortzeak izan dezakeen ardurari kalterik egin gabe.

## **9.- Karrerako funtzionari izendatzea**

Agiriak aurkezteko epea amaitu ondoren, Udalbatzarraren erabakiaren bidez hautatutako izangaiak karrerako funtzionario izendatuko dira.

Izendatuak izan diren izangaiak lanpostuz jabetu beharko du, akordioa jakinarazi zitzaion egunetik hasita hilabeteko epean. Epe hau iraupen bereko beste batez luzatu ahal izango da, izangaiak hala eskatzen badu eta, beti ere, horretarako arrazoizko kausarik baldin badago.

Aipatutako epearen barruan, lanpostuaz jabetzen ez direnek bere eskubideak galduko dituzte.

Izangaiak orain arte burutzen zuten lanpostuari atxikiko zaizkio, eta hauek ezarrita dituzten ordainsariak jasoko dituzte. Hala eta guztiz ere, ordainsari hauek orain artean jasotzen dituzten finko eta aldizkakoak baino txikiagoak badira, alde honen adinako norbanakoen mailako osagarria jasotzeko eskubidea izango dute. Osagarri hori ez da zurgagarria izango, eta ez da gerora bidezko izan daitezkeen eguneratzeen kaltetan izango.

## **10.- Gertakariak**

Epaimahaiak ahalmena du, oinarri hauetan azaldu ez eta sortzen diren zalantzak erabaki, eta hautespen prozesua ongo eta zuzen gara dadin behar diren neurriak hartzeko.

Deialdi honi, honen oinarriari, eta hauen eta epaimahaiaren ondorioz sorturiko edozein administrazio-ekintzari aurka egin aha izango diete

interesatuek azaroaren 26ko 30/1992 Legeak, Administrazio Publikoen Erregimen Juridikoari eta Administrazio Jardunbide Arruntari buruzkoak, aurreikusitako modu eta kasuetan.

### **3.- 1999ko AURREKONTU KREDITU ALDAKETA**

Lizartzako Udal honen 1999ko Aurrekontuaren barnean Kreditu-Gaikuntzen erregimenaren bidez izapidetzen den Kreditu-Aldaketarako espedientearen berri eman ondoren.

Idazkari-Kontuhartzaileak jaulkitako txostena irakurri ondoren, zeinak adierazten baitu aipatutako espedientea aplikagarria zaion indarreko araudiari egokitzen zaiola eta, hortaz, bere aldeko txostena ematen baitu.

Onespena proposamena formulatzen duen Ogasun Batzordeak emandako aldeko irizpena irakurririk.

ERABAKI DA:

- 1.- Kreditu-Gaikuntzen erregimenaren bidez egin beharreko Kreditu-Aldaketarako espedientea onestea, 8.313.400,- pezetako zenbatekoaz, espedientearekin batera jasotako egoera-orriskari ageri den kontzeptu eta partiden xehekapen berarekin.
- 2.- Egintza hau bestelako tramiterik gabe irmo eta exekutiboa denez gero, bidezkoa da onetsitako Kreditu-Aldaketa Fondoan Kontuhartzaitza Zerbitzuek Kontabilitatean berehalako ondorioekin isla dezaten.

**KREDITU-GAIKUNTZEN ERREGIMENAREN BIDEZ EGIN BEHARREKO KREDITU-ALDAKETARAKO 30001 ZK. ESPEDIENTEA ONESTEKO PROPOSAMENA**

Lizartzako Udal honen 1999ko Aurrekontuaren barnean Kreditu-Transferentzi erregimenaren bidez izapidetzen den Kreditu-Aldaketarako espedientearen berri eman ondoren.

Idazkari-Kontuhartzaileak jaulkitako txostena irakurri ondoren, zeinak adierazten baitu aipatutako espedientea aplikagarria zaion indarreko araudiari egokitzen zaiola eta, hortaz, bere aldeko txostena ematen baitu.

Onespena proposamena formulatzen duen Ogasun Batzordeak emandako aldeko irizpena irakurririk.

ERABAKI DA:

- 1.- Kreditu-Transferentzien erregimenaren bidez egin beharreko Kreditu-Aldaketarako espedientea onestea, 3.591.143,- pezetako zenbatekoaz, espedientearekin batera jasotako egoera-orriskari ageri den kontzeptu eta partiden xehekapen berarekin.
- 2.- Egintza hau bestelako tramiterik gabe irmo eta exekutiboa denez gero, bidezkoa da onetsitako Kreditu-Aldaketa Fondon Kontuhartzaitza Zerbitzuek Kontabilitatean berehalako ondorioekin isla dezaten.

#### **4.- 6. AREAKO LAGUNTZAZKO ARAUEN ALDAKETA**

**IKUSIRIK** 1988ko Ekainaren 4ean Gipuzkoako Foru Aldundiak Lizartzako Udalerriko Arau Subsidiarioak behin-betirako onartu zituela.

**IKUSIRIK** Udal honetako Sarrera Erregistroan, Gipuzkoako Lizartzako Arau Subsidiarioen 6. Eremuaren Aldaketa” izeneko dokumentua, 1999ko Urtarrilaren 18an aurkeztu dela, izapidetzeko helburuarekin.

**IKUSIRIK** dokumentu hori behar bezala izapidetzeak udalerririk Serreria Goikoetxeandia lantegiaren aurrean eta Araxes ibaiaren ezkerreko ertzean



dauden lursailak hartzen ditu- indarrean dagoen plenamendu orokorreko hirigintza-ordenazioaren Aldaketa eragin dezakeela.

**KONTUTAN HARTUZ,** Lurzoruaren Erregimenari eta Hiri Antolamenduari buruzko Legearen Testu Bateratua onartzen duen ekainaren 26ko 1/1992 Errege Dekretu Legegilearen 128. artikuluan ezarritakoaren arabera, Plan, Proiektu, Programa, Arau eta Ordenantzetako edozein elementu aldatzeko jarraitu beharreko xedapenak, elementuok tramitatu eta onartzeko erabilitako berberak izango dira.

**KONTUTAN HARTUZ** Hirigintza Planeamenduko Erregelamendua onartzen duen ekainaren 23ko 2159/1978 Errege Dekretuaren 125. artikuluan arabera, lanak nahiko aurreratuta daudenean jendaurrean ezarri beharko direla gutxienez 30 eguneko epean, iragarkia Probintziako Aldizkari Ofizialean eta bertan gehien hedaturiko egunkarian txertatuz. Planeamenduko irizpide, helburu eta konponbide orokorrak gauzatu eta iradokizunak egin ahal izango dira eta, hala badagokio, baita Udaletxe, elkarte eta herritarren bestelako planeamenduen alternatibak aurkeztu ere.

Aurreko guztia eta toki-erregimeneko oinarriak araupetzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 21.1.n) artikuluan ezarritakoa ikusirik, Lurzoru erregimenaren neurri liberalizatzaile eta Elkargo Profesionalei buruzko apirilaren 14ko 7/1997 Legeak emandako idazketa berriari jarraiki, udalerrri honetako Alkatetza-Lehendakaritzak honako Erabaki hau hartu du:

**LEHENA.-** Gipuzkoako "Lizartzako Arau Subsidiarioen 6. Eremuaren Aldaketa " izeneko dokumentua jendaurrean jartzea hogeitamar eguneko epean erabaki honetako xedapenen bigarren puntuan adierazitako komunikabideetan ateratako azken argitalpenetik zenbatzen hasita, iradokizunak egin ahal izateko, eta hala badagokio, Udaletxe, Elkarte eta herritarrek bestelako planeamendu-alternatibak aurkezteko.

**BIGARRENA.-** Lehen aipatutako jendaurreko epearen irekitzea Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean eta probintzian gehien hedaturiko egunkarian argitaratzeko agintzea.

## **5.- GURE GARAPEN ZERBITZURAKO AURREZKI KUTXA BATEN ALDE**

Kutxako hauteskunderen aurrean, behean sinatzen dugun udaletxeek, gure ordezkari batzeko asmoa agertarazi nahi diogu, Gipuzkoako herri txikien interesak hobeki defendatuko dituzten kontseilari amankomun batzuk izendatzeko helburuaz, instituzio honek herrialdeko biztanle guztien zerbitzura egon behar duela ikusirik.

Kutxako hauteskunde prozesuak, gabezia demokratiko larriak ditu udaletxeen ordezkari dagokionean, Batzar Orokorrerako ordezkari lortzeko herri txikiak daukaten ezintasunean zehazten delarik hau, kontseilari guztiak herri handiagokoen artean banatuz.

Egoera honen aurrean gelditzen zaigun aukera bakarra, elkartu eta Kutxaren aurrean, gipuzkoar guztiek, eta batik bat herri txikiak dituzten arazoei irtenbidea emateko politika egitea defendatuko duten kontseilari amankomunak izendatzea izango litzateke.

Herri txikiak orokorrean, azpiegitura maila baxuak, zerbitzu sozial eta kultural txarrak, eta tamaina txikiak izatearen ondoriozko bitarteko gabeziak gehituz, arazo hauek oinarritzekoak bihurtu daitezkeen gertatzen da, garapena eragotziz eta biztanleen bizi kalitatearen hobekuntza ezinezko bihurtuz.

Egoera honen aurrean Kutxak "lukro merkantilik gabeko izaera sozialdun entitate finantzieroa" izanik, oinarritzeko papera jokatu behar du, herriaren interes sozial edo ekonomikodun obra eta zerbitzuetan inbertsioa bultzatuz; horretarako gure herrien garapen ekonomiko sozial eta kulturalerako beharrezko diren inbertsioei aurre egiteko, baldintza berezietako kreditu lineak emanaz.

Ziur gaude, Euskal Herriaren nazio eta sozial eraikuntzan konprometituak dauden udaletxe txiki asko etorriko direla bat ideia hauekin, gure ekimenarekin bat egiteko gonbitea zabaltzen diegularik, Kutxak ohiko banku baten bidez utzi eta benetan herriaren zerbitzuan jarri dadin.

Kutxako hauteskundearen aurrean, beste udalerrri batzuekin gure ordezkari batzea proposatzen dugu.

Beraz, agertarazi nahi dugun asmoa eta proposamena, Amezketan, Anoeta, Astigarraga, Lezo, Lizartza, Oinartzun, Usurbil, Zaldibi eta Zestoak bat egitea da.

Kutxako hauteskundeak direla eta, aurkeztutako proposamena aztertu eta eztabaidatu ondoren, aho batez onartua izan da.

## **6.- GALTZAUNDI EUSKARA TALDEA**

Galtzaundi Euskara Taldeak luzatutako proposamenaren berri ematen da, eta hau da:

Iaz bezala, aurten ere 2000. Urteari begira Galtzaundi Aldizkariak dirulaguntza-eskaera luzatu nahi dizue eskualdeko udalei.

Esan beharrik ez da "Galtzaundiren eskualdea" osatzen duten 23 udalerrien dirulaguntza ezinbestekotzat jotzen dugula Galtzaundi Aldizkariaren funtzionamendurako eta 2000.ean aurrera eraman nahi den egitasmorako. Beste batzuen artean, bi proiektu aipagarri:

- a) **Aldizkaria**, hilabetekaria dena, hamabostero kaleratzeko asmoa urtariletik aurrera, **hamabostekari bihurtzekoa** hain zuzen. Horrela, urtean 22 zenbaki izango ditugu.
- b) Galtzaundik badu bere **web orria Interneten**. Galtzaundiren ekimenen berri ematen badu ere, **eskualde osoko informazio orokorra, baita herriz-**

**herrikakoa** sartzen ari gara eta pixkanaka osatuz goaz. Geografia, historia, festa, interesgune eta abarren berri izan dezakegu bertan, baita zure herriari dagokionean ere.

Dirulaguntza, iaz bezala, herri bakoitzak duen biztanle kopuruaren araberakoa egin dugu. Biztanle bakoitzeko 110 pezetako laguntza finkatu genuenez, Lizartzako Herriari, 70.840,- pta. legokioke. Kopuru hau, ordea, erreferentzia moduan ematen dizugu eta zure Udalak du, noski azken erabakia.

Galtzaundi Euskara Taldeak eginiko proposamena aztertu eta eztabaidatu ondoren, aho batez onartua izan da.

## **7.- ARANZADI**

Aranzadi Zientzi Elkartek, Lizartzako Historia eta Kultur Ondasuna berreskuratzeko egitasmoa aurkeztu du, Udalaren aurrean.

Egitasmo honekin, ondare historiko-kulturalaren inguruko azterketa sakona egin eta Herri-nortasuna sendotzeko eta bizilagunen jakinmina asetzea lortu nahi da.

Lan hori burutzeko epea hiru urtetakoa izango da, hau da: 2000tik 2002 urte bitarte, eta bere aurrekontua honela banatuko litzateke:

2000. Urtean: 300.000 pezeta

2001. Urtean: 300.000 pezeta

2002. Urtean, 300.000 pezeta

Lizartzako Historia eta Kultur Ondasuna berreskuratzeko, Aranzadi Zientzia Elkartek eginiko proposamena aztertu eta eztabaidatu ondoren, aho batez onartua izan da.

## **8.- TXOLARRE IRRATIA**

Txolarre Irratiako partaideek, Tolosaldea eskualdeko biztanleen beharrei erantzun nahian, Irrati horren berri ematen dute, Udalaren aurrean.

Hauek dira, Txolarre Irratiaren helburuak:

- 1.- Euskararen normalkuntzarako tresna izatea.
2. Euskara eta kultur taldeen proiektu bateratzailea izatea.
- 3.- Txolarre Irratia, herri guztien ahotsa izatea.

Txolarre Irratiaren finantzaketa, honela izango litzateke:

- 1.- Haserako inbertsioaren aurrekontua finantzatzeko, Udalari, 45.576,- peza tokatuko litzaizkioke.
- 2.- Urteko gastuen finantzatzeko, Udalari, 68.006,- peza tokatuko litzaizkioke.

Txolarre Irratiako partaideek eginiko proposamena aztertu eta eztabaidau ondoren, aho batez onartua izan da.

## **9.- MUMIA-ABU – JAMAL-EN ALDEKO ETA HERIOTZ ZIGORRAREN KONTRAKO PLATAFORMA**

1982an, kazetari ospetsua eta pantera beltzen partido politikoaren kide ohia, eta Philadelphiako polizia departamentuaren arrazakeri nahiz bortzakeria gogor salatu duen **Mumia Abu-Jamal**, polizi azalzuri baten hilketagatik kondenatua izan zen, Daniel Faulknerren hilketari hain zuzen ere.

“Urkamendiko epailea” delako Albert Sabok epaitua eta heriotzarako zigortua izan zen. “Urkamendiko epailea” deitzen diote Estatu Batuetan heriotzaz afroamerikar gehien zigortu dituen epailea delako. Hala eta guztiz ere **Mumiar**i akusatu zaitzaion karguaz proba bat ere ez dago eta epaiketan **Mumiar**en eskubide konstituzionalak 29 aldiz gutxienez errespetatu ez zirela

ere, ziurtatua dago. 1996an Bill Clintonek “heriotza eranginkorraren aldeko legea” sinatu zuenetik, Estatu Batuetako gorte gorenei ailegatzen diren apelazioak murrizten dira eta gaur egun heriotzarako zigortuek azkeneko eta bakarreko apelazioa dute. Gorte honen aurrean epaiketan gerta daitezkeen irregularitate guztiak berraztertu ahal izateko.

Hau da **Mumia Abu-Jamalen** egoera juridikoa: bere abokatu defendatzaileak “Habeas Corpus” eskatu du orain dela gutxi. Apelazio honek **Mumia Abu-Jamalen** exekuzioa momentuz geldiarazi du, hasieran urte honetako, hau da 1999ko abenduaren 2rako finkatu zena.

1980an **Mumia Abu-Jamal** Philadelphiako kazetari beltzen presidentea hautetsia izan zen. National Lawyer’s Guilden ohorezko presidenteordea da, Amerikako 5000 abokatu progresisten elkarte dena. Kalifornian San Franciscoko New School of Lawen ohorezko titulua eman zioten; ohorezko bizilaguna Copenhagen (Dinamarkan) eta Palermon (Italian) izendatua; 1997ko azaroan Dinamarkako Solhvervfonden fundazioaren saria eman zitzaion bere gizakiaren aldeko lanagatik bere gizartearen gizajoen aldeko kazetari lanegite honek “ahotsarik gabekoen ahotsa” izendatu zuen.

**Mumia Abu-Jamalen** atxikipen adierazpenak areagotzen dira egunez egun, herriarteko politikaren nortasun handiko pertsonak dira, Nelson Mandela, Lionel Jospin, Jaques Chirac, Danielle Miterrand, nazio batuen bozeramalea den Koffi Annan, besteak beste, herriarteko legegileak, beraien artean Diet Japoniarraren 38 kide eta Daniar parlamentuaren 74 kide, Europar parlamentuaren Biltzarra, Finlandiar Gobernuaren Arte eta Kultura arloan nortasun handikoak diren Shalman Rushdie, Spike Lee, Whoopi Goldberg, Harry Belafonte eta Naomi Campbellek **Mumia Abu-Jamal**entzako epaiketa berri bat eskatu dute.

**Mumia Abu-Jamalen** askatasuna eskatzeak, errugabekoen exekuzio hiltzeak azkar ez daitezzen eta azkenekoz heriotz zigorra Estatu Batuetan indargabe dadila, erran nahi du. Hau dena askatasun handiaz harro dagoen

herri batez ari gara, iparramerikatar hiritarren bizitza eskubidea errespetatzen ez duen bitartean.

Hau dena dela eta, Lizartzako Udalaren Osoko Bilkurari zera onartzeko proposatzen zaio:

- 1.- Heriotz zigorraren gauzapenari gaitzespenarik tinkoena erakustea.
- 2.- Estatu Batuetako Gorde Gorenean **Mumia Abu-Jamali**, eman ziren irregularitate guztiak berraztertuko liratekeen entzunaldi frogarri bat eman ziezaiola.
- 3.- Kasua instruitu duen epaileari eskutitz bat idaztea eta honek aldaki eta **Mumia Abu-Jamalen** abokatuari helarazi. Bestaldetik ere Españan dagoen Estatu Batuetako enbaxadoreari ere eskutitz bat idaztea itun hau ezagutaraziz.
- 4.- Udal honek itaundu duena agerian eta publikoa jakineraztea.

**Mumia Abu-Jamalen** aldeko eta heriotz zigorraren kontrako plataformak aurkeztutako proposamena aztertu eta eztabaidatu ondoren, aho batez onartua izan da.

#### **10.- IRUN ETA HONDARRIBIAKO OHIKO ALARDEAK EMAKUMEZKOEN KONTRAKO DISKRIMINAZIOA**

Irun eta Hondarribian sortutako arazoa dela eta, Talde Feministen Koordinakundeak udal horrengana jotzen du emakumezko guztiek beste edonoren baldintza berdinetan gizartearen jarduera-eremu guztietan parte hartzeko duten eskubidea ezagutu dadin eta berdintasunerako eskubidea eta sexu bereizketagatiko diskriminaziorik ez izateko eskubideak berma daitezen.

Hori dela eta, honakoa eskatzen dugu:

- 1.- Udal horrek, instituzio publiko eta herriaren ordezkari zuzena den aldetik, arlo horretan indarrean dagoen legedia bete dadin zain dezala, emakumezkoek diskriminaziorik jasango ez dtela berma dezala eta Udalak sustatu edo diruz lagundutako edozein ekintzatan emakumezkoek berdintasunez parte hartzea bultzatzeko konpromisoa har dezala.
- 2.- Irun eta Hondarribiko ohiko alardeak emakumezkoen kontrako diskriminazioaren adierazle argiak izanik, Udal horrek publikoki azal dezala alarde mistoen aldeko jarrera eta, Eusko Legebiltzarraren ebazpenez indartu eta Euskal Herriko Justizi Epaitegi Gorenak emandako sententziak hala ezagutzen duen bezala, emakumezkoek festa-ekitaldi horietan parte hartzea Konstituzioak aitortutako eskubidea izateaz gain, beren hiritar izateari lotutako oinarrizko eskubidea dela ulertuz, eska dezala indarrean dagoen legedia betetzea.
- 3.- Mozio honetako testu onartua bidaliz, udalaren jarrera hori Irun eta Hondarribiko Udalei helerazteko konpromisua har delaza.

Irun eta Hondarribiko ohiko alardeak emakumezkoen kontrato diskriminazioa dela eta aurkeztutako mozioa, aztertu eta eztabaidatu ondoren, aho batez onartua izan da.

## **11.- REPSOL GAS. AKTIBITATE LIZENTZIA**

Repsol Butano S.A.k, Lizartzako Aztinako Etxe Burua lurretan, Gasaren almazenamendu zentroa eta banaketa sarea jartzeko, egindako ikuskaritza bisita eskaeraren arabera, 1999ko Abenduaren 1ean, Udaleko Arkitektoak eginiko Ikuskaritza Aktaren arabera, ERABAKI DUT:

- 1.- Eskatzen ziren baldintza eta neurri zuzentzaileak bete direnez, Aktibitate hori baimentzea.
- 2.- Ebazpen honen berri, Iharduera Gogaingarri, Osasunkaitz, Kaltegarri eta Arriskutsu Lurralde Batzordeari jakineraztea.



## **12.- ALKATETZAREN DEKRETUAK**

### **TELEFONICA SERVICIOS MOVILES**

Telebistako Errepetidorearen ondoan, Telefonikako Antena jartzeko baimena ematen da, baldintza hauekin:

- 1.- Aurkeztutakoa oinarrizko proiektua da eta birplanteoa eskatzen dutenean exekuzio proiektua eta soka tiraketa planoak aurkeztu beharra dago.
- 2.- Inguruan sortzen duen eraginagatik bere inguruko itxitura osoan zuhaizkak aldatuko dira.
- 3.- Ibilgailuentzako sarrera ebin beharra dago.
- 4.- Beste antzeko enpresei, bere antena erabiltzen utzi beharra izango dute, zortasuna ezarriaz.

### **MANUEL BARRIOLA TOLOSA**

Ikusiz, Lizartzako Planeamenduko Arau Ordezkatzaileetan, azaltzen den Poligono 2 – Partzela 335ean, Manuel Barriola Tolosa Jaunak eginiko pinu landaketak.

Ikusiz, Lizartzako Planeamenduko Arau Ordezkatzaileetan (21. Bis art.)ren arabera, aipatutako gunean, bertako ez diren hosto iraunkorra duten zuhaitz moten landaketa masiboa, debekaturik dagoela.

Kontutan hartuaz Euskal Autonomi Erkidegoko Justizi Auzitegi Nagusiak 3396/94 zenbakidun errekurtsioan, 1998ko azaroaren 30ean emandako epeain legekotzat jotzen dituela aipaturiko artikulok.

Kontutan hartuaz Toki Erregimenaren Oinarri Legearen 21.k) eta 68.1 artikulok xedatutakoaren arabera

ERABAKI DUT:

Lehenengo.- Manuel Barriola Tolosa Jaunari hamabost egunetako epea ematea, landatutako pinua atera dezan.

Bigarrena.- Honela egiten ez bada, Lizartzako Udalak ateratzea, ejekuzio subsidiarioan, gastuak interesdunaren gain joangi direlarik.

#### AGUSTIN GOIKOETXEAUNDIA PAGOLA

Ikusiz, Lizartzako Planeamenduko Arau Ordezkatzaileetan, azaltzen den Poligono 2 – Partzela 142an, Agustin Goikoetxeaundia Pagola Jaunak eginiko pinu landaketak.

Ikusiz, Lizartzako Planeamenduko Arau Ordezkatzaileetan (21. Bis art.)ren arabera, aipatutako gunean, bertako ez diren hosto iraunkorra duten zuhaitz moten landaketa masiboa, debekaturik dagoela.

Kontutan hartuaz Euskal Autonomi Erkidegoko Justizi Auzitegi Nagusiak 3396/94 zenbakidun errekurtsioan, 1998ko azaroaren 30ean emandako epeain legezkotzat jotzen dituela aipaturiko artikuloak.

Kontutan hartuaz Toki Erregimenaren Oinarri Legearen 21.k) eta 68.1 artikuluak xedatutakoaren arabera

ERABAKI DUT:

Lehenengo.- Agustin Goikoetxeaundia Pagola Jaunari hamabost egunetako epea ematea, landatutako pinua atera dezan.

Bigarrena.- Honela egiten ez bada, Lizartzako Udalak ateratzea, ejekuzio subsidiarioan, gastuak interesdunaren gain joango direlarik.

### ESTANIS AGIRRE ZABALA

Zumitza Baserriko teilatuari erretila emateko baimena.

### ANTONIO ZABALA GARMENDIA

Martaenea etxearen kanpoko eskailera berritzeko baimena ematea, baldintza honekin:

Lehengoko eskaileraren zanga berbera egingo da, nahiz zoladura aldatu.

### JULEN ARRATIBEL SOTO

Intxaurrendoko baserrian septika eta leihoak haunditzeko baimenik ez zaio ematen, ondorengo baldintzak betetzen ez diren bitartean.

Bainugela eta ikuiluko urak lokatzak sedimentatzeko zuloan zuzenean bideratu daitezke, sukaldekoak koipeak eta solidoak bereitzeko lehenengo zulora bideratuko dira, ondoren irazi eta zanga irazkorrean errekaraino isuri behar dira.

Fatxaden aldaketak gai den teknikariaren proiektua bisatua behar dute obra nagusiak bezala.

### MANUEL BARRIOLA TOLOSA

**GAIA:** Manuel Barriola Tolosa Jaunak aurkeztutako Birjarpenezko Errekurtsoaren onartezintasuna. Errekurtso hori Lizartzako Lurzoru Hiritarrezinean egindako legez kanpoko pinuen landaketak direla eta, hauek ateratzeko aginduaren aurka jarri du.

### **AURREKARIAK:**

**Ikusiz** 1999ko Azaroaren 22an Manuel BARRIOLA TOLOSA Jaunak aurkeztu zuen idatzia. LIZARTZAKO Alkate Jaunak azaroaren 4ean jakinerazitako Alkatetza Dekretuaren aurka aurkeztu zuten idatzi hura.

**Ikusiz** Alkatetza Dekretu horretan Manuel Barriola Tolosa Jaunari landatutako pinua atera zezan hamabost egunetako epea ematen zitzaiola, edo bestela Lizartzako Udalak, exekuzio subsidiarioan aterako zituen, gastuak interesdunaren gain joango zirelarik.

#### **GERTAKARIAK:**

- 1.- Errekurtso idatzia, 1998ko abenduaren 4ko Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean agertu zen Lurzoru Hiritarrezineko baimen eta lizentzia kontuetan jarduketak koordinatzen dituen Foru Dekretuan oinarritzen du, non bere esanetan, argi geratzen da zuhaitz landaketen eskuduntza Gipuzkoako Foru Aldundiarena dela eta bere xedapen derogatzailearen arabera Foru Dekretu horren aurka zeuden Arau Subsidiario guztiak indar gabe geratu ziren, Lizartzako Arau Subsidiarioen 21.bis artikulua barne.
- 2.- Euskal Autonomi Erkidegoko Justizi Auzitegi Nagusiak 3396/94 zenbakidun errekurtsoan, 1998ko azaroaren 30ean emandako epaian legezkoztat jo zituen aipaturiko artikulua.
- 3.- Aipatutako jabeek, ez dute zuhaitzak landatzeko udal lizentziarik eskatu, nahiz eta beharrezkoa izan, zeren beste Administrazio Publiko batzuek emandako lizentzia edo baimenek ez dute salbuesten baimen horien titularra toki-entitateen dagokion lizentziak lortzeko obligaziorik.
- 4.- Beraz, Lizartzako Planeamenduko Arau Ordezkatzaileetan (21. Bis art.)ren arabera, aipatutako gunean, bertako ez diren hosto iraunkorra duten zuhaitz moten landaketa masiboa, debekaturik dagoela eta Kontutan hartuaz landaketa hori Lizartzako Planeamenduko Arau Ordezkatzaileen 21. Bis, 22 eta 23, artikuluen aurka eginda dagoela, onartezina izango da Manuel Barriola Tolosa Jaunak ezarritako birjarpenezko errekurtso hau.

## **ZUZENBIDEKO OINARRIAK**

- 1.- 30/1992 Legeko 116 eta 117. Artikuluak, Administrazio Publikoen Araubide Juridiko eta Administrazioaren Prozedura Arruntari buruzko Legea (E.A.O. 285. Zenbakia).
- 2.- Toki Erregimenaren Oinarri Legearen 84.3 artikulua.

## **ERABAKIA:**

**Lehenengoa.-** Manuel BARRIOLA TOLOSAk 1999ko Azaroaren 22an aurkeztutako birjarpenezko errekursoaren onartezintasuna adierazi.

**Bigarrena.-** Manuel Barriola Tolosa Jaunari hamabost egunetako epea ematea, landatutako pinua atera dezan. Honela egiten ez bada, Lizartzako Udalak ateratzea, ejekuzio subsidiarioan, gastuak interesdunaren gain joango direlarik.

**Hirugarrena.-** Interesdunari ondorengoa jakinaraztea: ebazpen honen aurka, administrazio-auzi gaietako errekurtoa aurkez dezakela, Euskal Herriko Auzitegi Nagusiko Administrazio-Auzi Gaietako Aretoan hain zuzen. Ebazpena jakinarazi, eta bi hilabeteko epea izango du errekurtoa aurkezteko.

## **AGUSTIN GOIKOETXEAUNDIA**

**GAIA:** Agustin Goikoetxeaundia Pagola Jaunak aurkeztutako Birjarpenezko Errekursoaren onartezintasuna. Errekurto hori Lizartzako Lurzoru Hiritarrezinean egindako legez kanpoko pinuen landaketak direla eta, hauek ateratzeko aginduaren aurka jarri du.

## **AURREKARIAK:**

**Ikusiz** 1999ko Azaroaren 25ean Agustin GOIKOETXEAUNDIA PAGOLA Jaunak aurkeztu zuen idatzia. LIZARTZAKO Alkate Jaunak azaroaren 4ean jakinerazitako Alkatetza Dekretuaren aurka aurkeztu zuten idatzi hura.

**Ikusiz** Alkatetza Dekretu horretan Agustin Goikoetxeaundia Pagola Jaunari landatutako pinua atera zezan hamabost egunetako epea ematen zitzaiola, edo bestela Lizartzako Udalak, exekuzio subsidiarioan aterako zituen, gastuak interesdunaren gain joango zirelarik.

#### **GERTAKARIAK:**

- 1.- Errekurtso idatzia, 1998ko abenduaren 4ko Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean agertu zen Lurzoru Hiritarrezineko baimen eta lizentzia kontuetan jarduketak koordinatzen dituen Foru Dekretuan oinarritzen du, non bere esanetan, argi geratzen da zuhaitz landaketen eskuduntza Gipuzkoako Foru Aldundiarena dela eta bere xedapen derogatzailearen arabera Foru Dekretu horren aurka zeuden Arau Subsidiario guztiak indar gabe geratu ziren, Lizartzako Arau Subsidiarioen 21.bis artikulua barne.
- 2.- Euskal Autonomi Erkidegoko Justizi Auzitegi Nagusiak 3396/94 zenbakidun errekurtsuan, 1998ko azaroaren 30ean emandako epaian legezkozat jo zituen aipaturiko artikulua.
- 3.- Aipatutako jabeek, ez dute zuhaitzak landatzeko udal lizentziarik eskatu, nahiz eta beharrezkoa izan, zeren beste Administrazio Publiko batzuek emandako lizentzia edo baimenek ez dute salbuesten baimen horien titularra toki-entitateen dagokion lizentziak lortzeko obligaziorik.
- 4.- Beraz, Lizartzako Planeamenduko Arau Ordezkatzaileetan (21. Bis art.)ren arabera, aipatutako gunean, bertako ez diren hosto iraunkorra duten zuhaitz moten landaketa masiboa, debekaturik dagoela eta kontutan hartuaz landaketa hori Lizartzako Planeamenduko Arau Ordezkatzaileen 21. Bis, 22

eta 23, artikuluen aurka eginda dagoela, onartezina izango da Agustin Goikoetxeaundia Pagola Jaunak ezarritako birjarpenezko errekurtsio hau.

## **ZUZENBIDEKO OINARRIAK**

- 1.- 30/1992 Legeko 116 eta 117. Artikuluak, Administrazio Publikoen Araubide Juridiko eta Administrazioaren Prozedura Arruntari buruzko Legea (E.A.O. 285. Zenbakia).
- 2.- Toki Erregimenaren Oinarri Legearen 84.3 artikulua.

## **ERABAKIA:**

**Lehenengoa.-** Agustin GOIKOETXEAUNDIA PAGOLAK 1999ko Azaroaren 25ean aurkeztutako birjarpenezko errekurtsioaren onartezintasuna adierazi.

**Bigarrena.-** Agustin Goikoetxeaundia Pagola Jaunari hamabost egunetako epea ematea, landatutako pinua atera dezan. Honela egiten ez bada, Lizartzako Udalak ateratzea, ejekuzio subsidiarioan, gastuak interesdunaren gain joango direlarik.

**Hirugarrena.-** Interesdunari ondorengoa jakinaraztea: ebazpen honen aurka, administrazio-auzi gaietako errekurtsioa aurkez dezakela, Euskal Herriko Auzitegi Nagusiko Administrazio-Auzi Gaietako Aretoan hain zuzen. Ebazpena jakinarazi, eta bi hilabeteko epea izango du errekurtsioa aurkezteko.

## **JOSE ARZADUN EGILUZ**

Ikusiz, Lizartzako Planeamenduko Arau Ordezkatzaileetan, azaltzen den Poligono 2-Partzela 345ean, Jose Arzadun Egiluz Jaunak, eginiko pinu landaketak.

Ikusiz, Lizartzako Planeamenduko Arau Ordezkatzaileetan (21. Bis art.)ren arabera, aipatutako gunean, bertako ez diren hosto iraunkorra duten zuhaitz moten landaketa masiboa, debekaturik dagoela.

Kontutan hartuaz Euskal Autonomi Erkidegoko Justizi Auzitegi Nagusiak 3396/94 zenbakidun errekurtsioan, 1998ko azaroaren 30ean emandako epaian legezkotzat jotzen dituela aipaturiko artikuloak.

Kontuan hartuaz Toki Erregimenaren Oinarri Legearen 21.k) eta 68.1 Artikuluak xedatutakoaren arabera

ERABAKI DUT

Lehenengo.- Jose Arzadun Egiluz Jaunari hamabost egunetako epea ematea, landatutako pinua atera dezan.

Bigarrena.- Honela egiten ez bada, Lizartzako Udalak ateratzea, ejekuzio subsidiarioan, gastuak interesdunaren gain joango direlarik.

Eta hitzegiteko beste gairik ez dagoenez, Alkateak, Batzarra amaitutzat eman du,